

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Kultura aztertzen ari da Alkerdiko harrobien ustiapenak kobak arriskuan jartzen dituen

*Alkerdiko labar-arteko grabatuak Nafarroako ondare artistikoaren obra zaharrenak dira*

Miércoles, 25 de marzo de 2015

Kulturako Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak meatze-ingeniaría eta ondare artistikoan aditua den bati txosten tekniko bat egiteko agindua eman dio honako hau azter dezan: "Alkerdi"-ko harrobiak ustiitzen dituen enpresak aurkeztutako jarduera-planak Urdazubiko udal-mugarteko Alkerdi-Berroberria kobak edo haiek zaintzeko lanak kaltetzen dituen.



Kulturako kontseilari Sánchez de Muniáinek eta Kulturako zuzendariak Urdazubiko alkatearekin egindako bileraren une bat.

Hala jakinarazi dio Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinek Urdazubiko alkate Santiago Villaresi Nafarroako Jauregian gaur goizean egiten duten bileran. Bertan izan da ere, Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui.

Bilkuran, alkateak udalerrriak duen kezka igorri die, kobetan eragin dezaketen kalteengatik, eta baita enpresak aurreikusitako ustiapen-metodoaren ondorioek (metodoaren aurka agertu da) beste alor batzuetan izan ditzakeen eraginengatik, turismoan, gizartean edo ingurumenean, esaterako.

Alkerdi-Berroberria kobako arkeologia-multzoak Nafarroarako balio bikoitza du. Alde batetik, labar-arte edo paleolitikoko (hormakoa) bere grabatuak bertako ondare artistikoko obra zaharrenak dira; aldi berean, Foru Lurraldeko Paleolitikoko labar-artearen katalogo bakarra da. Bestalde, lurpean utzitako maila arkeologikoen gizaki paleolitikoa leku horretan bertan egon izanaren industria baten aztarnategiak dituzte. Hori berresten du Nafarroako Paleolitiko garaiko aztarnategien lehen lerroan (Abaunzko kobaren alboan), askorik ez dagoena.

Gogoratuko denez, iragan uztailearen 15ean ustiapenean leherketa bat egin zen, eta horrek nolabaiteko kezka sortu zuen leherketek sortutako dardarek kobetan eragin zitzaketen ondorioengatik. Hori dela-eta, 668/2014 Ebazpenaren bidez, abuztuaren 12koa, Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiarena, ustiapenean zulatzeko eta

leherketak egiteko lanak behin-behinekoz eten ziren.

Txostena agindu zaion pertsona meatze-ingeniaria eta ondare historikoan aditua da, [ICOMOS ESPAÑA](#)ko kidea baita (Dokumentu eta Tokien Nazioarteko Kontseiluko Espainiako Batzordea).

### **Kobak**

Bi koba txiki hauek Alkerdiko auzoan daude, harrobietatik hurbil. Frantziako espeleologo Norbert Casteret-ek 1933an aurkitu zuen Berroberria eta "grabatuen koba bat", Alkerdi.

Alkerdiko kobako galeriaren hondoan, bisonte, orein eta zaldia izan daitekeenaren grabatuak aurkitu dira. Goi Madeleine aldikoak izan daitezke, duela 13.000 urte inguruak.

Historiaurreko aztarna nagusiak Nafarroako museoan daude, Historiaurreko areto berrian, Homo Sapiens giza molar ospetsua esaterako eta Nafarroako giz aztarna zaharrena jotzen dena (kristo aurreko 24.530). Ehizako beste lanabes batzuk ere (geziak, zizelkatzeko tresnak...) Alkerdi eta Berroberriako kobetakoak dira; 1996tik itxita daude, eta urte horretan egin zen azken indusketa.

1939an Lorianako markesak egindako zenbait azterketaren ondorioz, tresna batzuk aurkitu zituen. Ondoren, 1959an J. Maluquer de Motesek ekin zion bere azterketari, eta haren materialak Nafarroako